## OBRA GAUZATZEA – Maila aurreratua



### *Checklist hornitzaileentzat: Ingurumen-irizpideak*

### 1. ERANSKINA: BALDINTZAK

BAI zutabeko laukia markatu gutxieneko nahitaezko espezifikazio guztiak eta hitzemandako baloragarriak betetzen direla berresteko. Nahitaezko irizpideak ez betetzeak edo haiek betetzea frogatzen duen abala ez aurkezteak automatikoki baztertzen du eskaintza kontuan hartzea esleipen-prozedurako hurrengo faseetan.

Espezifikazio baloragarrietan, espezifikazioa betetzea frogatzen duen abala ez aurkezteak hari lotutako puntuazioa, eskaintza onuragarriena identifikatzeko balio duena, ezeztatuko du.

| **ENPRESAREN IZENA:** | | | |
|---|---|---|---|
| **GAITASUN TEKNIKO ETA PROFESIONALA** | **BAI** | **ABAL MOTA** | **ESKAINTZAREN ORRIA** |
| Ekodiseinuaren kudeaketa-sistemaren ziurtagiria ISO 14001 arauaren edo pareko baten arabera | ☐ | Enpresa kudeatzeko sistemaren ziurtagiria edo prozedurak eta formatuak | |
| Taldean eraikuntza jasangarriaren arloko aditu bat sartzea gutxienez<br>edo<br>Urbanizazio-obrak gauzatzean inpaktuak prebenitu/murriztearen arloko berariazko prestakuntza | ☐ | Teknikariaren curriculuma eta homologazioen kopia<br>edo<br>Konpromiso-gutuna | |

| DERRIGORREZKO IRIZPIDEAK | BAI | ABAL MOTA | ESKAINTZAREN ORRIA |
|---|---|---|---|
| Obraren Ingurumen Kudeaketako Planaren aurrerapena | ☐ | 1 | |
| Gutxienez ur eta elektrizitate kontsumoak monitorizatu eta erregistratzeko ekipamenduak jartzeko konpromisoa | ☐ | 1 | |
| Legezko iturrietako eta espezie ez-mehatxatuetako zura eta produktu parekagarriak erabiltzeko konpromiso-gutuna | ☐ | 1 | |
| **IRIZPIDE BALORAGARRIAK** | **BAI** | **ABAL-MOTA/** | **ESKAINTZAREN ORRIA** |
| **1 AUKERA** | | | |
| DURBE behin-behineko zigilua edo aurre-bereizgarria hobetzea neurri zehatzak identifikatuz. | ☐ | Urbanizatzeko proiektuen garapen jasangarrirako gida aplikatzean ateratako agiria, emaitzen fitxa, lortutako puntuazioa eta aplikatu ez diren edo aplikagarri ez diren neurrien justifikazioa aurkeztu beharko dira. | |
| **2 AUKERA** | | | |
| **MATERIALAK:** Agregakin birziklatua erabilera egokietan (gutxieneko atalasea % 25ean ezarri da) | ☐ | 1 | |
| **MATERIALAK:** Materialak in situ aprobetxatzea eta kanpoko materialik ez sartzea. | ☐ | 2 | |
| **HONDAKINAK:** Hondakinak kudeatzeko neurriak hautatzea. | ☐ | 3 | |

**JARRAIBIDEAK**

“**Abal mota**” zutabean ingurumen-ziurtagiriak, ekoetiketak edo espezifikazio edo irizpide baloragarri bakoitza betetzen dela bermatzen duten agiriak edo informazioa jaso dezaketen agiriak jaso dira, baina bestelako egiaztagiri baliokideak onartuko dira, ezarritako irizpideak betetzen direla argi frogatzen bada.

Zenbakiak dokumentazio honi dagozkio:

| |
|---|
| 1. Enpresaren konpromisoaren aitorpena |
| 2. Obran ezarriko diren neurrien azalpena eta in situ berrerabiliko diren materialen ehunekoaren zenbatespen bat. |
| 3. Proiektuan “Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko planak idatzi eta ezartzeko gidaliburua. Jardunbide egokiak” dokumentuko maila aurreratuaren arabera ezarriko diren neurrien azalpena |

**Eskaintzaren orrialdea** zutabean abala eransten den lizitazio-dokumentuaren orrialdea edo eranskina adieraziko da.